



IKASTETXEA	AIXERROTA BHI	KODEA	015109
Arloa/ Irakasgaia	EKONOMIA	Zikloa / Maila	1. BATX
Irakasleak	Jone Agirregomezkorta Karmele Torralba Alfonso	Ikasturtea	2015~16

HELBURUAK	EBALUAZIO - IRIZPIDEAK
<p>H1.- Jarduera ekonomikoaren zikloa identifikatzea eta sistema ekonomikoak bereiztea, nork bere iritzia izan dezan haietako bakoitzaren abantailez eta desabantailez.</p> <p>H2.- Interesa izatea egungo arazo ekonomiko handiak zentzu kritikoz eta solidarioz ezagutzeko eta interpretatzeko.</p> <p>H3.- Gertaera ekonomikoak beren testuinguru sozial, politiko, kultural eta naturalarekin erlazionatzea, eta eguneroko egoeretara eramatea, inguruan dugun mundu ekonomikoa ulertzeko eta aztertzeke, eta hari lotutako arazoak konpontzeke.</p> <p>H4.- Merkatuaren funtzionamendua eta haren mugak deskribatzea, irizpide kritikoa izatea sistemari buruz, eta desberdintasunak arindu ditzaketen birbanaketa-neurriak aztertzea, era horretan nork bere iritzia izan dezan desberdintasun ekonomikoei buruz, eta jakin dezan nola ezar ditzakeen sistemak birbanaketa-mekanismoak.</p> <p>H5.- Espainiako, Europako eta Euskal Herriko ekonomien ezaugarri bereizgarriak ezagutzea eta ulertzea Europako herrialdeetako ekonomien arteko interdependentzia ulertzeko.</p> <p>H6.- Nork bere usteak ematea gaurko arazo ekonomikoei buruz, eta, horretarako, iritziak zehatz eta zorrotz adieraztea eta argudiatzea, desadostasunak eta bestelako ikuspuntuak onartzea, nork bere irizpide propioetan oinarritutako iritzia osatzeko, nork bere burua aberasteko bidea baita.</p> <p>H7.- Komunikabideetan egungo arazo ekonomikoei buruzko informazioa</p>	<p>I1.- Gizarte baten oinarrizko arazo ekonomikoak identifikatzea eta sistema ekonomiko batean haiek konpontzeke modua arrazoitzea, bai eta sistema horren abantailak eta desabantailak arrazoitzea ere. H1</p> <p>I2.-Ekonomia arloak erabiltzen duen metodo zientifikoa ulertzea H1</p> <p>I3.- Herrialdeko produkzio-egituraren ezaugarri nagusiak identifikatzea. H1 H2</p> <p>I4.- Lanaren banaketa-teknikoaren arazoak azaltzeko gai izatea .H3 H2</p> <p>I5.- Enpresaren Helburuak, Funtzioak eta bere eragina gizartean eta norbanakoengan azaltzea.H2 H3 H4</p> <p>I6.- Enpresaren kostuak eta mozkinak kalkulatzeko, baita enpresaren ekoizpen funtzioa aztertzea kasu bat emanda eta bere grafikoak interpretatzeko.H2 H3 H5</p> <p>I7.- Eraginkortasun tekniko eta ekonomikoa erlazionatzea eta bereiztea. H1 H2 H3</p> <p>I8.-Merkatuaren funtzionamendutik abiatuta, ondasunen eta zerbitzuen prezioetan gertatzen diren aldaketak interpretatzeko zenbait aldagairen arabera. H5 H4 H2 H3 H1</p> <p>I9.-Benetako merkatuen funtzionamendua aztertzea, eta ikustea ereduak zer desberdintasun dituzten eta desberdintasun horiek zer ondorio dakartzaten kontsumitzaileentzat, enpresentzat eta estatuentzat.H5 H4 H2 H3 H1</p> <p>I10.- Magnitude makroekonomiko nagusiak bereiztea, eta haien arteko erlazioak aztertzea, eta, horretarako, bizikaltatearen adierazle gisa dauzkaten desabantailak eta mugak ebaluatzea. H5 H6 H7 H8 H10</p> <p>I11.-Oinarrizko kopuru eta adierazle ekonomikoak informatika-tresnak erabiliz interpretatzeko eta tratatzeko.H5 H6 H7 H8 H10</p> <p>I12.- Lan -Merkatuaren estruktura, eta bere erlazioa</p>



interpretatzea eta kontrastatzea eta erabiltzen jakitea, norik bere iritzi kualifikatua izateko tresna baliagarria izan daitezten.

H8.- Hazkunde ekonomikoak ingurumenean eta pertsonen bizi-kalitatean dituen ondorioak aztertzea eta kritikoki ebaluatzea ondorioak argi ikusteko eta ekonomia batzuen garapena mugatzen duten arazoez konturatzeko kontuan hartuta ekoizpen-faktoreak urriak direla.

H9.- Era autonomo eta arrazoituan heltzea inguruan dauden arazo ekonomikoei, eta aintzat hartzea haien azterketaren eta interpretazioaren zorroztasuna, arazo horien konponketari lotutako datuak aurkitzeko, lantzeko eta emaitzak eta ondorioak ateratzeko.

H10.- Magnitude makroekonomiko nagusien erabilera eta esanahia ezagutzea eta ulertzea, eredu ekonomikoa eta haren mugak nahiz kostuak epaitu ahal izateko.

H11.- Botere publikoek ekonomian betetzen duten eginkizuna aztertzea, denok herri-administrazioen zama orokorretan lagundu behar dugula ulertzeko.

hezkuntzarekin eta formakuntzarekin aztertzea; Eb, Espainia eta Euskal Herriko langabezi estatistikak aztertzea bereziki **H5 H7 H9 H10**

I13.- Langabezi eta Inflazio datuak eta aukera desberdinak egoera bideratzeko aztertzea, bereziki EB, Espainia eta Euskal Herrikoak, **H9 H10 H11**

I14.- Diruaren sorrera-prozesua, haren balio-aldaketak eta azken horiek nola neurtzen diren deskribatzea. **H8 H9 H10 H11**

I15.- Inflazioaren eragileak, bai inflazioak kontsumitzaileengan, enpresetan eta ekonomia osoan dituen ondorioak azaltzen dituzten teoriak identifikatzea. **H8 H9 H10 H11**

I16.- Finantza-sistemaren funtzionamendua azaltzea eta hartako Produktu eta merkatu nagusien ezaugarriak jakitea. **H8 H9 H10 H11**

I17.- Moneta-politika mota desberdinak aztertzea. **H9 H10 H11**

I18.- Europako Banku Zentralaren egitekoa eta bere Montea-Politikaren estruktura aztertzea. **H9 H10 H11**

I19.- Ordainketa-balantzaren oinarrizko egitura, bi ekonomia-arte merkataritze-fluxuak aztertzea, eta zehaztea nolako eragina duten haren osagaietan merkataritze-fluxuen aldaketak eta aldagai makroekonomiko batzuen balizko aldaketek. **H10 H11**

I20.- Integrazio-ekonomikoaren prozesua aztertzea eta EBean eman diren pausuak azaltzea **H8 H9 H10 H11**

I21.- Globalizazio-Ekonomikoaren arrazoiak eta ondorioak baloratzea eta Nazioarteko Erakundearen zeregina erregulatzeko. **H8 H9 H10 H11**

I22.- Hazkunde-Ekonomikoak, Krisiek, Integrazio-Ekonomikoak eta Globalizazioak pertsonengan, Ingurugiroan, eta Ondarearen banaketan daukaten eragina baloratzea, bereziki Garapen ekonomiko arazoak dituzten Herrialde txiroek, erlazio ekonomiko ez-orekatuengatik **H8 H9 H10 H11**

I23.- Birbanaketa neurrien analisisa egitea, bere mugak eta alboko efektuak, eta egoera zehatz batean ekitateari laguntzeko neurrien azterketa **H5 H8 H9 H11**

I24.- Merkatu Ekonomian, Estatuaren Helburuak eta zeregitekoak azaltzea, erabiltzen dituen tresnak identifikatzea eta bere eskuhartzearen ondorioak baloratzea. Beste eragile ekonomikoen zereginak azaltzea. **H1 H2 H3 H11**

**EDUKIEN SEKUENTZIA**

(denbora –tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta)

**EBALUAZIOA** (40+2 ordu idatzizko frogetarako)**II. MULTZOA.- JARDUERA EKONOMIKOA ETA SISTEMA EKONOMIKOAK.**

UD. 1. (E1) Ekonomiaren funtsa H1 H2 H3 H5 H6 H7 H9

8 ord.

UD. 2. (E2) Ekonomiaren antolaketa H1 H2 H3 H5 H6 H7 H9

10 ord.

UD. 3. (E3) Ekonomiaren erabaki-hartzaileak H1 H2 H3 H5 H6 H7 H9

10 ord.

III. MULTZOA.- EKOIZPENA JARDUERA.

12 ord.

UD. 4. (E4) Ekoizpena eta banaketa H1 H2 H3 H5 H6 H7 H9

**EBALUAZIOA** (34+2 ordu idatzizko frogetarako)**IV. MULTZOA.- TRUKEA ETA MERKATUA.**

UD. 5. (E5) Merkatuaren funtzionamendua H2 H3 H4 H5 H6 H7 H9

12 ord.

UD. 6. (E6) Merkatu motak H2 H3 H4 H5 H6 H7 H9 H11

6 ord.

UD. 7. (E7) Ekoizpen faktoreen merkatua H2 H3 H5 H6 H7 H9

8 ord.

UD. 8. (E8) Merkatuaren hutsegiteak H2 H3 H4 H6 H7 H9

8 ord.

**EBALUAZIOA** (35+2 ordu idatzizko frogetarako)**V. MULTZOA.- MAGNITUDE NAZIONALAK ETA EKONOMIA BATEN ADIERAZLEAK.**

UD.9. (E9) Ekonomia-adierazleak H2 H3 H6 H7 H8 H9 H10

9 ord.

UD.10. (E10) Merkatuaren barne-indarrak. H2 H3 H4 H6 H7 H8 H9 H10 H11

9 ord.

VI. MULTZOA.- EKONOMIAREN FINANTZ-ARLOAK.

UD.12. (E12) Dirua eta bankuak H2 H3 H5 H6 H7 H8 H9 H10 H11

4 ord

UD.13. (E13) Espainiako finantza-sistema H2 H3 H5 H6 H7 H8 H9 H10 H11

3 ord.

VII. MULTZOA.- EKONOMIAREN NAZIOARTEKO TESTUINGURUA.

UD.14. (E14) Nazioarteko merkataritza H2 H3 H5 H6 H7 H8 H9 H10 H11

4 ord.

VIII. MULTZOA.- DESOREKA EKONOMIKOAK ETA ESTATUAREN PARTE-HARTZEA EKONOMIAN.

UD.11. (E11) Ekonomia-politikak H2 H3 H5 H6 H7 H8 H9 H10 H11

6 ord.

(E15)EAEko Kontzertu ekonomikoa H2 H3 H5 H6 H7 H8 H9 H10 H11

2 ord.

I. MULTZOA.- EDUKI KOMUNAK: Eduki hauek oinarritzko zeharkako gaitasunekin lotuta daude daukate eta irakasgai guztiek daukate. (E16) Ez dira ikusiko ebaluazio bakarrean, kurtso osoan zehar baizik, beste edukiak lantzen diren bitartean (autoregulazioa, lankidetzeta, errespetua, asertibitatea, enpatia, informazioa identifikatu, ulertu, landu, prestatu, azaldu,...). H2 H6 H7 H9



METODOLOGIA

[edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

EDUKIEN ANTOLAKETA ETA JARDUERA MOTAK

- Hasiera: gaiaren aurkezpena, lotura duen egoera, bideo, pelikula edo notizia baten bidez (bide batez gaiaren edukiak eta helburuak azalduko dira)
- Garatzeko:
 - Irakaslearen gaiko kontzeptu teorikoen azalpena. (eskemak, mapa kontzeptualak, ariketen ebazpena,...)
 - Ikasleen gaiko kontzeptu teorikoen lanketa (ariketak egitea banaka edo taldeka, Komunikabideetako berrien eztabaida eta komentarioa,...)
- Amaitzeko: Ariketen Ebazpena edo taldeko lanak aurkezpena, banakako lana, irteerak, jokuak, debateak, simulazioak edo egoera errealean azterketak

BALIABIDE DIDAKTIKOAK

- Testu-liburua (Ekonomia, Mc GrawHill argitaletxea 2011)
 - apunteak
 - Komikiak
 - Pelikulak eta bideoak
 - jokuak
 - Komunikabideetako albisteak (egunkariak, internet, telebistak eta irratiak)
- IKT baliabideak:
- Mintegiko eta ikasleen helbide elektroniko korporatiboa, informazioa elkartrukatzeko
 - gelako ordenagailua, proiektore eta internet konexioa, baliabide digital ezberdinak erabiltzeko: egunkari digitalak, telebista, pwp, infografiak pdf-ak eta bideo adierazgarriak pelikulak eta komikiak (: ¿que es la inflacion? (E9), las uvas de la ira (E9, E11), tiempos modernos (E4), nola sortu koop, la economia en media hora,...)
 - web interesgarriak : 3w.cincodias.es (E2, E10), 3w.consumer.es (E2), 3w.etb.com, 3w.youtube.es, 3w.europa.eu (E9-E16), 3w.ine.es (E7), 3w.eustat.net (E7), 3w.economiasolidaria.org (E2, E3), 3w.bancomundial.org (E9-E16), 3w.imf.org (E9-E16), 3w.expansion.es (E9-E15), 3w.conciertoeconomico.org (E15), 3w.ecomur.es, 3w.ecobachillerato.es, ...
 - Joku interaktiboak: presidential game (E9-E16), 3wdolceta.eu (E1, E2, E5)

TALDEKATZEAK

Banakako lana: ikasleak berak hausnartzeko edo irakaslearen laguntza behar dutenean.

Talde txikiak: lankidetzak lantzeko, taldean hausnartzeko eta haien arteko iritziak elkartrukatzeko.

Klase osoaren taldea: ideiak komunean jartzeko, debateak.

ESPAZIOEN ANTOLAKETA

Taldearen gela: orokorrean, klasea emateko, bideoak/dokumentalak ikusteko.

Informatika gela: ikasleek internetetik informazioa lortzeko eta lanak egiteko eta prestatzeko.

DENBORAREN ANTOLAKETA

Eskola orduaren hasiera, gaiari hurbilketa eta berkokapena

Eduki berrien lanketa era desberdinez

Eduki horien hausnarketa ordua amaitzeko

Asteazken zehar, ariketak edo lan taldeak egin behar direnean azkeneko klase orduak erabiliko dira

**INDARTZEKO ETA ZABALTZEKO NEURRIAK**

Behar duen ikasleari jarraipen pertsonalizatuagoa egingo zaio ekimen desberdinak egingo dira:

- Errefortzuzkoak → gutxienezko helburuak (h1-h24)*, ariketak lantzea eta galdera laburrak.
- Zabaltzekoak → ariketa konplexuagoak, ikerketa txikiak, simulazioak, txosten gehigarriak, lehiaketetan parte hartzea

EBALUAZIO TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portafolioa, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
<ul style="list-style-type: none"> ▪ GALDERAK: galdetegiak (gaiaren hasieran eta amaieran). ▪ LANAREN BEHAKETA, GELAKOAZ ZEIN ETXERAKOAK: kontrol-zerrenda, errubrikak, behaketa, ikasgelako koadernoak. ▪ IKASLEEN LANAREN AZTERKETA (banakakoa eta taldekoa): kontrol zerrendak, ikasgelako koadernoak, behaketa, errubrikak. ▪ PROBA ESPEZIFIKOAK: unitatea, ebaluaketa edo irakasgai osokoak (gaiaren arabera izan daitezke test-ak, erantzun laburrak eta zabalak, deskriptiboak, analitikoak, buruketak...). 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ IDATZIZKO PROBAK % 80 Bi idatzizko frogak ebaluaketa bakoitzean. Idatzizko frogen kalifikazioa, azterketa biren portzentaia gehituz lortuko da. Ebaluaketa bakoitzean, frogak biak ez dute zertan berdin balio behar (edukien arabera) Bi frogen kalifikazioa gutxienez 4 izan behar da. Lehenengo frogatik gero, bigarren frogan ebaluatu gabeko materia sartuko da bakarrik. Lehenengo frogatik emaitza 4 baino gutxiagokoa bada, bigarren frogan ebaluaketa osoa sartuko da. H1- H11 (E1-E15) ▪ PROPOSATUTAKO JARDUERAK ETA LANAK %10 (banakakoak eta talde-lana). Baloratuko da: datan aurkeztea, galdetutakoa erantzutea, dena eginda egotea, norberak eginda izatea (derrigorrezkoa). Talde-lana: elkarrekin eginda izatea, era egokian aurkeztua izatea eta ekarpenak egitea H1- H11 (E1-E16) ▪ JARRERA %10 Baloratuko da: parte hartzea klasean eta eztabaidetan, eguneroko lana, gaiarekiko interesa, ikaskideei laguntzea, gai berriak gelara ekartzea, gelako lan giroa ez etetea, bertaratzea, puntualitatea, materiala zaintzea, errespetua, etxerako lanak egitea, ikastetxeak gelan jarritako bizikidetzaren arauak bete eta zaintzea H1-H11 (E16) <p>Ebaluazioak gaitzetzeko gutxienezko nota 5 da, kontuan hartzen lehen aipatutako ponderazioa (80-10-10)</p>



EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

[indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...]

KURTZOAREN KALIFIKAZIOA

Irakasgai honen edukiak, oso zabalak eta desberdinak direnez, irakasgaia gairatzeko ebaluaketa guztiak (eta banaka) gairatuta izan behar dira.

Hiru ebaluaketen (edo euren errekupeaketan) kalifikazioen batez bestekoa izango da kurtsoaren azken nota.

Nota hobetzeko, ikasleak, froga idatzia egin dezake kurtso osoko edukiarekin, froga horretan lortutako nota izango da behin-betikoa.

ERREKUPERATZEKO SISTEMA

Gairatu gabeko ebaluaketa errekupeatzeko idatzizko froga bat finkatuko da ebaluaketa saioa pasatu eta 2-3 astera (3.ebaluazioan izan ezik) . Froga horretan ebaluaketa horretako eduki guztiak sartuko dira. Honez gain, irakasleak gairatu gabeko edukiari buruzko jarduerak proposatu ahal ditu errekupeatzeko. Errekupeazioen gehieneko nota 5 da eta idatzizko froga edukiko da kontuan soilik.

Ebaluaketa bakoitzaren errekupeaketa ez gairatzeak suposatzen du ebaluaketa hori gairatzeke dagoela. Maiatzako ohiko deialdirako.

Ohiko deialdian, ebaluaketa bakarrik gairatzeke duenari, horren azterketa egingo zaio. Bi edo 3 ebaluaketa gairatu gabe dituenari froga bakarrik egingo du **kurtso osoko** edukiarekin. Ebaluaketako nota, ohiko deialdiko frogan lortutako nota izango da soilik.

Ohiko deialdian, ebaluaketa bakarrik gairatzeke duenari, horren azterketa egingo zaio. Bi edo 3 ebaluaketa gairatu gabe dituenari froga bakarrik egingo du **kurtso osoko** edukiarekin. Ebaluaketako nota, ohiko deialdiko frogan lortutako nota izango da soilik.

EBALUAKETA JARRAIA GALTZEA

Ikasle batek hutsegiteen %20 gairatzen baldin badu hiruhilabete batean, ebaluaketaz ebaluaketa ebaluatua izateko eskubidea galduko du (201/2008 EAEko Dekretua, 38.art) . Ebaluaketa gairatzeko ohiko edo eta ezohiko deialdiara aurkeztu beharko da.

GAINDITUGABEKOAK

Ekonomia eta Enpresa Ekonomia irakasgaien arteko prelatzioa ez dagoenez, ezin da irakasgai hau gairatu bigarren mailako ebaluaketa bat gairatzean.

Irakasgaia gairatu gabe duen 2.mailako ikasleak bi aukera izango ditu gairatzeko, froga idatzien bidez: ohiko eta ezohiko deialdia. Froga idatzien edukia kurtso osokoa izango da.

Ikaslea ikasturtearen hasieran irakaslearekin bildu behar da, edukiaren zehaztasuna adosteko.

Irakaslea eta ikaslea ados jarrita, ohiko eta ezohiko azterketen datak aurreratu daitezke.



OHARRAK

- Materia libratzeko idatzizko froga batera etortzerik ez duenari (arrazoia edozein dela), ez zaio errepikatuko aukera, ebaluaketako azterketan ebaluatuko zaio.